



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 2a

74. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarran familia elkartzeko gune bat abian jar dezan. Eskubide Sozialetako Batzordeak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodenaren bidez laguntza finantzarioa ematen zaien enpresa guztiek beren plan estrategikoetan ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-iraunkortasuneko irizpideak eta helburu zehatzak dituzten ekintza-planak txerta ditzaten. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aitortza adieraz diezaien beren lana Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten polizia nazionalai, haiek Polizia Merituaren Ordenan sartuz eta haienzako bereizgarri espezifiko bat sortuz. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan, Sozietateen gaineko Zerga aldatzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da albo batera utz dezan “itzaleko bidesaria” ize-neko finantzaketa-formula etorkizunean egiten diren azpiegiturretan. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin ditzan hitz egiten diren lurraldearen zati batean edo lurralde osoan ofizialak ez diren hizkuntza berekiak ofizialak izateari dagokionez Diputatuen Kongresuak 2021eko martxoaren 9an onetsitako erabakia eta gutxieneko akordioa. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan Nafarroako Errepide Sarean inbertitzearen eta sarearen mantentze-lanen aldeko Nafarroako ituna lortzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2021eko urtarrilaren 15eko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4.1.e) artikulua aldatzeko zuzenketa.

“e) Kulturaren sustapena eta zabalkundea; kultur ondarearen defentsa, bai eta hizkuntz-aberastasuna eta -dibertsitatea sustatzea ere”.

Zioak: Legegintzako ahalegin garrantzitsu horretan, ezin da alde batera utzi gure erkidegoaren eta hura osatzen dugun emakume eta gizon guztien ondare gisa dugun hizkuntz-aberastasuna. Haien sustapen aktiboa ez da soilik erakundeen eremutik egin behar, baizik eta fundazioek egiten duten ekarpen sozialera ere zabaldu behar da.

2. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

11.4 artikulua aldatzeko zuzenketa. 11. artikuluen 4. puntuari azken esaldia gehitzen zaio:

11. artikulua.

«4. Fundazioa “mortis causa” egintzaren bidez eratzean, xedatzaileak fundazio bat sortzeko eta hasierako zuzkidurako ondasun eta eskubideak baliatzeko borondatea adierazi baizik ez badu

egin, foru lege honetan eskatzen diren gainerako baldintzak jasotzen dituen eskritura publikoa eman beharko dute, hain zuzen ere, “mortis causa” izaerako liberalitateak egikaritu behar dituztenek, zuzenbideari jarraikiz hala dagokiela. Betebehar hori betetzen ez bada, eskritura Babesletzak egiletsiko du, epailearen aldez aurreko baimenarekin».

Zioak: 11.4 artikulua ez du aurreikusten oinordekoek ez betetzea kausatzaileak xedatutakoa, eta arautu beharreko lege-hutsune bat ezartzen da. Hori dela eta, salbuespen bat ezartzen zaio lege-proiektuaren fundazio-ereduari, zeinak Babesletza esleitzen baitu erregistro-prozedurak irauten duen bitartean, ez-betetzeen kasuetan Administrazioak bermatu ahal izan dezan Fundazioa eratzea.

3. ZUZENKETA

GEROA BAI

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

11.4 artikulua aldatzeko zuzenketa.

«4. Fundazioa “mortis causa” egintzaren bidez eratzean, xedatzaileak fundazio bat sortzeko eta hasierako zuzkidurako ondasun eta eskubideak baliatzeko borondatea adierazi baizik ez badu egin, foru lege honetan eskatzen diren gainerako baldintzak jasotzen dituen eskritura publikoa eman beharko dute, hain zuzen ere, “mortis causa” izaerako liberalitateak egikaritu behar dituztenek, zuzenbideari jarraikiz hala dagokiela. Xedatzailearen fundazio-borondatea betetzen ez bada, Babesletzak egiletsiko du eratze-eskritura hori, ebazpen judizial irmo batek ezartzen duen moduan».

Zioak: “Mortis causa” egintzaren bidez xedatzaileen sortze-borondatea betetzea, legez hori egiteko betebeharra duenak hori betetzen ez badu.

4. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

14.2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“2. Inskripzioa ez badute eskatzen edo prozeduraren ondorioz zuzenketa egiteko eskaerei erantzuten ez badiete horretara behartutako pertsonak, modu solidarioan hartuko dute bere gain dagokien erantzukizuna, fundazioa inskripzio prozesuan zegoelarik jarduketa ez betetzeagatik eta egindako egintzengatik. Nolanahi ere, eratze-eskitura egileksi zenetik 6 hilabete igaro badira inskribatzeko eskatu gabe, Babesletzak patronatua kargutik kenduko du”.

Zioak: Beharrezkoa da tresna arin eta bermatzaile bat artikulatzea, Babesletzaren bidez zuzendu ahal izateko Patronatuko kideek fundazio bat inskribatzeko betebeharra betetzean izan duten jarduerarik eza, zeina manugaitza eta luzea izan baita.

5. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

25 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Agiri publiko nahiz pribatu batean gauzatu beharko da onarpena edo ukoa, notarioak legeztatutako sinadurarekin. Patronatuaren aurrean ere egiten ahalko dira onarpena nahiz ukoa, eta idazkariak emandako ziurtagiri baten bidez frogatuko dira, Fundazioen Erregistroan pertsonalki agertuz edo zuzenbidean balio duen edozein bitarteko erabiliz, horren berri modu fede-emailean ematen badu.

Zioak: Segurtasun juridikoko tresna bat ahalbidetzea, Patronatuak jardunik egiten ez duen kasuetan Patronatuko kideek uko-egitea gauzatu ahal izateko.

6. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

25. artikuluari beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa.

“Patronatuko kideak izendatzeko eta kargugabetzeko erabakiak Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira”.

Zioak: Patronatuko kideen izendapenen eta kargu-uzteen publikotasunaren baldintza betetzea.

7. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

43.2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“2. Fundazioak aldi behin programatuko ditu bere helburuari dagozkion jarduerak, eta, horretarako, urtean behin prestazioen eta haien finantzaketaren plangintza egingen da, eta horiek nola egin eta adjudikatu erabakiko da”.

Zioak: Fundazioen gardentasunari eta gobernantza-irizpideei buruzko foru lege honen printzipioei jarraikiz, jasotzea finantzaketa ere haren programazioaren informazioaren parte bat izan dadila.

8. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

44.4 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Ezin izanen dira inola ere onuradun izan bana-zehaztutako pertsonak, salbu eta interes orokorra helburu duten pertsona juridikoak badira”.

Zioak: Proposatzen dugu muga horretatik kanpo uztea interes orokorreko helburuak dituzten pertsona juridikoak, beren jarduerak pertsonen kolektibitate zehaztugabeei mesede egiten dietelako, nahiz eta haiek izan hartzaile nagusiak.

9. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

47.6 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Fundazioak errentak erabiltzen ahalko ditu aurreko 1. apartatuak aipatzen duen proportzioan, haiek jasotzen dituenetik 4 urteko epean. Artikulu honetako 2., 3., 4. eta 5. zenbakietan ezarritako doikuntzak aplikatzean zuzendutako kontabilitate-emitza negatiboa bada, emitza horrek hurrengo urteetako helburuetara bideratzeko betebeharra murriztuko du”.

Zioak: Aldaketaren bidez, fundazioen deskapitalizazioa saihestu nahi da, aurreko urteetan galarak izan arren emaitzaren % 70 helburuetan aplikatzeko betebeharragatik. Patronatuak zuzenduraren balioa berrezartzera bideratu ahal izanen ditu galerak izan ondoren lortutako emitza positiboak. Horrela, haien osotasuna bermatzen da denboran zehar eta, beraz, epe luzerako helburuak betetzea.

10. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

49.6 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Patronatuak jarduketa plan bat egin eta bidaliko du Babesletzara ekitaldi bakoitzeko azken hiru hilabeteetan, eta bertan jasoko ditu hurrengo ekitaldirako helburuak eta aurreikusitako jarduerak, kalkulaturako diru-sarreraren eta gastuen partiden aurreikuspen bat eta jarduketa-planaren azalpenmemoria bat”.

Zioak: Fundazioei buruzko foru lege hau arautzen duen printzipioa gardena izan dadin.

11. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

60.3 eta 60.4 artikulua ordezteko zuzenketa:

3. “Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazio guztiak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Babesletzaren mende jarriko dira, eta hark babesletza hori baliatuko du fundazioen arloko eskumena esleituta duen departamentuaren bitartez”.

4. “Printzipioz, Idazkaritza Nagusi Teknikoari egokituko zaio babesletza baliatzea, salbu eta departamentuak bere egitura organikoaren barruan organo espezifiko bat sortzea erabakitzen badu”.

Zioak: Babesletza gauzaterakoan departamentuen arteko sakabanaketa saihestea, horrek dakartzan ondorioekin, irizpideak bateratzea eta kontzentratzea erraztuz.

12. ZUZENKETA**GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

61.1.a) artikulua aldatzeko zuzenketa:

«a) Zaintzea fundazio eskubidea behar bezala gauzatzen dela, “mortis causa” egintzaren bidez xedatzaileen sortze-borondatea defendatzea barne, egiaz betetzen direla fundazioaren xedeak eta fundazioaren xedeak eta egiaz garatzen diren jarduerak bat datozela».

Zioak: Babesletzaren eginkizunen artean sartzeari 11.4 artikuluan planteatutako aldaketan jasotako eginkizuna, legegintza-teknika hobea izateko

eta Babesletzaren eginkizunak hobeki zehazteko, lege honen aginduarekin bat etorritz.

13. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

67 artikulua aldatzeko zuzenketa.

«67. artikulua. Definizioa eta araubide juridikoa.

1. Fundazio publikoak dira Foru Administrazio Publikoaren esparruan sortutakoak bere eskumeneko helburuak gauzatzeko, Foru Zuzenbide Zibilararen Konpilazioarekin bat, bai eta beren sorreran izaera pribatua bazuten ere, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak geroztik betetzen dituztenak ere.

Entitate sortzailearen eskumen esparruari loturiko jarduerak bakarrik egiten ahalko dituzte».

Zioak: Apartatu hau sartu da fundazio pribatuek etorkizunean fundazio publiko bihurtzeko aukera izan dezaten, betiere erregelamendu bidez zehazten diren baldintzak betetzen badituzte.

14. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

11/2019 Foru Lege proiektuaren 67. artikulua aldatzeko xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«67. artikulua. Definizioa eta araubide juridikoa.

1. Fundazio publikoak dira Foru Administrazio Publikoaren esparruan sortutakoak bere eskumeneko helburuak gauzatzeko, Foru Zuzenbide Zibilararen Konpilazioarekin bat, bai eta beren sorreran izaera pribatua bazuten ere, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak geroztik betetzen dituztenak ere.

Entitate sortzailearen eskumen esparruari loturiko jarduerak bakarrik egiten ahalko dituzte.

Zioak: Apartatu hau sartu da fundazio pribatuek etorkizunean fundazio publiko bihurtzeko aukera izan dezaten, betiere erregelamendu bidez zehazten diren baldintzak betetzen badituzte.

15. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

Azken xedapenetako bigarrena: Arauetako aipamenak.

“Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzeko duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean bere artikuluko indargabetuetara egindako arau-igorpenak foru lege honetako artikuluetara egindako arau-igorpenetat hartuko dira.”

Zioak: Azken xedapen honen bidez argitzen dira foru lege berri honen artikuluetan jada inda-

rrean ez dagoen araura unean-unean egiten diren arau-igorpenak, lege-interpretazioari buruzko eztabaidarik sor ez dadin.

16. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA GEROA BAI****TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Azken xedapenetatik bigarrenaren izenburua aldatzeko zuzenketa. Honela dio: “Azken xedapenetako hirugarrena”.

Zioak: Azken xedapenetatik bigarrena sartu denez legegintza-teknika egokirako, azken xedapenetatik bigarrena azken xedapenetatik hirugarrena izanen da.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarran familia elkartzeko gune bat abian jar dezan.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2021eko maiatzaren 26an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lizarran familia elkartzeko gune bat abian jar dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familia elkartzeko gune bat abian jar dezan Lizarran, gehienez ere urtebeteko epean”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodenaren bidez laguntza finantzarioa ematen zaien enpresa guztiek beren plan estrategikoetan ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-iraunkortasuneko irizpideak eta helburu zehatzak dituzten ekintza-planak txerta ditzaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodenaren bidez laguntza finantzarioa ematen zaien enpresa guztiek beren plan estrategikoetan ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-iraunkortasuneko irizpideak eta helburu zehatzak dituzten ekintza-planak txerta ditzaten”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Sodenaren bidez laguntza finantzarioa ematen zaien enpresa guztiek beren plan estrategikoetan ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-iraunkortasuneko irizpideak eta helburu zehatzak dituzten ekintza-planak txerta ditzaten.

2. Sentsibilizazio-ekintzak bultzatzen dituzten enpreetan jasangarritasun-irizpideak sartzea sustatzeko.

3. Herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak bultzatzen dituzten kontsumoaren arloan jasangarritasun-irizpideak kontuan hartzeko”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aitortza adieraz diezaien beren lana Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten polizia nazionaleri, haiek Polizia Merituaren Ordenan sartuz eta haienzako bereizgarri espezifiko bat sortuz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maitzaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da aitortza adieraz diezaien beren lana Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten polizia nazionaleri, haiek Polizia Merituaren Ordenan sartuz eta haienzako bereizgarri espezifiko bat sortuz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Aitortza adieraz diezaien beren lana Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin duten polizia nazionaleri, Nafarroako, Arabako,

Gipuzkoako eta Bizkaiko unitateetan hiru urtez destinatutakoak Polizia Merituaren Ordenan bereizgarri zuriarekin sartuz.

2. Egonaldiaren bereizgarri espezifiko bat sordez, zainak islatuko baitu Nafarroan edo Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu eman izana, urte horietako zeregina aitortuz.

3. Bi aitortza horiek irits daitezten erretiroan eta bigarren jardueran dauden agenteengana.

4. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Estatuko segurtasun indar eta kidegok hamarkada hauetan herritarren segurtasun eta ongizatearen alde egindako lana”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan, Sozietateen gaineko Zerga aldatzeko.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 27an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan, Sozietateen gaineko Zerga aldatzeko. Mozioa Izquierda-Ezkerra

talde parlamentario mistoak aurkeztu zuen eta 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da albo batera utz dezan “itzaleko bidesaria” izeneko finantzaketa-formula etorkizunean egiten diren azpiegituretan.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 27an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da albo batera utz dezan “itzaleko bidesaria” izeneko finantzaketa-formula etorkizunean egiten diren azpiegituretan.

Mozioa Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko martxoaren 25eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin ditzan hitz egiten diren lurraldearen zati batean edo lurralde osoan ofizialak ez diren hizkuntza berekiak ofizialak izateari dagokionez Diputatuen Kongresuak 2021eko martxoaren 9an onetsitako erabakia eta gutxieneko akordioa.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 27an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin ditzan hitz egiten diren lurraldearen zati batean edo lurralde osoan ofizialak ez diren hizkuntza berekiak ofizialak izateari dagokionez Diputatuen Kongresuak 2021eko martxoaren 9an onetsitako erabakia eta gutxieneko akordioa. Mozioa Geroa

Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu zuten eta 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan Nafarroako Errepide Sarean inbertitzearen eta sarearen mantentze-lanen aldeko Nafarroako ituna lortzeko.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 27an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan Nafarroako Errepide Sarean inbertitzearen eta sarearen mantentze-lanen aldeko Nafarroako ituna lortzeko. Mozioa Javier García

Jiménez jaunak aurkeztu zuen eta 2021eko maiatzaren 25eko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias